

XXXI. URTEA

80. zenb.

2013 MAIATZA-ABUZTUA

6,20 €



79 + 4 urratsen ondoren

Web 2.0 tresnak, hausnarketa-praktika irekiak eta
ikaskuntza-sare pertsonalak: Twitter, blogak eta Google
Drive irakasleen topaketetan

Puntuazioari buruzko dekalogo batera iristeko bidaia

HABE Liburutegia: hizkuntzen didaktikan eta
eleoniztasunean espezializatua

AISA online ikastaroa

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

HIZPIDE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago; helduen euskara-irakasleei, batik bat. Lau hilabetekari honek berezko esparru ditu ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusia duten zientzi arloak (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia / Pedagogia, Soziolinguistika), eta helburu nagusi hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea. **HIZPIDE**k teoria aplikatuaren eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua baita argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lan-tresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki, jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **HIZPIDE**k erronka. Azkenik, **HIZPIDE**ren zuzendaritza ez da artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

HIZPIDERako lankidetzak

HIZPIDEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruari behar bezala erantzuten lagundu dezaketen ekarpenak. Aldizkariaren orientabidea gogoan, bertara bidalitako lanek zerikusi handia izan behar dute euskalduntze-alfabetazegintzak egunero eta gertutik bizi dituen gorabeherekin. Eta, nahiz eta helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak hobetsi, ez ditu baztertuko helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak edota bestelako esparruetakoak, baldin eta egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri bezain interesgarri gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan, "Artikulugileentzako irizpi-deak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko zenbakian emango da argitara.

HIZPIDEk hemendik dei egiten die, aldizkarian esku har dezaten, euskara-arloan lan egiten duten irakasleei, hizkuntz eta hezkuntza-teknikariei, euskara-arduradunei eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei.

Posta

Honako helbide honetara igorriko da editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa:

HIZPIDE
Vitoria-Gasteiz, 3 20018 Donostia
Tel.: 943 022 600
Fax: 943 022 601
Prestakuntz@habe.org

Zuzendaritza

HABEren Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua

Koordinazioa

Programa Bereziak Atala

Koordinatzailea

Iñaki Murua
Programa Bereziak Atala

2013rako prezioa

Ale hau: 6,20 €

Diseinua eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design
Zedro Plaza 2-1. e
20016 - Donostia

Fotokonposizio, inprimatze eta koadernatzea:

Michelena artes gráficas, s.l.
Ubarburu pasealekua, 54. 27 Industrialdea
20115 Astigarraga (Gipuzkoa)

Legezko gordailua

SS-745/96

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, HABE.

ISSN 1136-5714



Zenbaki honetan

Aurkezpena 1

Solasean

Hizpide 79 + 4 urratsen ondoren 2

Ikerketak

Guillermo Gómez Web 2.0 tresnak, hausnarketa-praktika irekiak eta ikaskuntza-sare pertsonalak: Twitter, blogak eta Google Drive irakasleen topaketetan 10

Euskararen kutxa

Lorea Arrieta Puntuazioari buruzko dekalogo batera iristeko bidaia 34

Geure mundutxo

Imanol Irizar eta Oihana Oliveri HABE Liburutegia: hizkuntzen didaktikan eta eleaniztasunean espezializatua 57

Xabier Zubizarreta AISA online ikastaroa 68



Aurkezpena

Etenaldi txiki baten ondoren, eskuartean duzu ostera ere, irakurle, HIZPIDE aldizkaria. Eta, ohi bezala, ondoko lerroetan 80. zenbakiaren laburpena.

Hasteko, eta aldizkariaren 30 urte betetzen direla probestuz, arduradun ohiengana jo dugu –Imanol Irizar, Joanba Bergara eta Josu Peralesengana, hain zuzen ere–, orain arteko ibilbide zein etorkizunari buruzko euren iritzia eta esperientzia ezagutzeko.

Ikerketak atalean, aldiz, Deustuko Unibertsitateko gaztelania-irakasle Guillermo Gomezzen ekarpena dugu. Ikerlan zabalago batean dago testuinguratua bere artikulua; izan ere, euskarri digitaletan hausnarketa-praktiken eta ikaskuntza-sare pertsonalen nondik norakoak ari da aztertzen. Kontzeptu berriak, beharbada, baina testua irakurrita ondo ulertuko ditugunak. Bestalde, hiru erreminta jakinetan jarri du arreta oraingoa: Twitter, blogak eta Google Drive. Azalpen teoriko laburretik abiatuta eta ikas-irakas prozesuetan aipaturiko tresnek izan ditzaketen erabilereñ zertzeladez ukitua, hizkuntza-irakasleei zuzenduriko bi topaketatan izan duten erabilera aurkeztu eta analizatu du.

Zenbaki honetan, berriz zabaldu dugu Euskararen Kutxa; eta puntuazioari erreparatu. Idazkuntza eta testugintza irakasten dihardu aspaldi Lorea Arrietak, eta testuak idaztea eta zuzentzea du eguneroko lantergi. Irakasle eta zuzentzaile gisa duen eskarmentutik, puntuazio-sistema sendo baterako oinarri-irizpide batzuk eskaini nahi ditu, dekalogo gisa eskaini ere, lagungarria izango delakoan ofizioz edo afizioz berea bezalako lantergia duen edonorentzat. Artikuluan, dena den, hizkuntza-irakasleak izan ditu jomugan, haiek izan baititu bidaide nagusi urte luzez puntuaziori buruz eman dituen ikastaroetan.

Eta geure mundutxora jauzia, HABEko kideek idatzitako artikuluetan. Informazio eta Komunikazio Teknologiek oro har, eta Internetek batik batik, gizarte osoan izan duten eraginaren isla sumatuko dugu bietan. Lehenengoan, HABE Liburutegiko Imanol Irizarrek eta Oihane Oliverik, bibliotekak ematen dituen zerbitzuak gogorarazteaz gain, bertan eskaintzen diren berriez ere jardun dute. Bigarreanean, Xabier Zubizarretak AISA ikastaroen online bertsioaz idatzi du; alegia, orain dela urte batzuk etorkinak euskarara hurbiltzeko asmoz argitaraturiko materialak izan duen bilakaeraz.

Horra hor, irakurle, zenbakiaren mamia. Probetxuzkoa izan dakizula opa dizu Hizpidek.